

**Euskal Herriko laborantza  
zentsuen bateratzea.**

**Azterketa estatistikoa, 2006.**

# ZENTSUEN BATERATZEA

**SUSTATZAILEA:**



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia  
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria  
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

**EGILEA:**



**OHARRA:**

Lan hau, Aztiker Soziologia Ikerguneak egin du; Gaindegia-ko Estatistika Arduraduna den Amaia Elizagarate Sagastibeltzaren zuzendaritzapean.

Lan honen ondorio nagusiak "Datuen lehen irakurketa" izeneko txostenean aurkituko dituzu.

Aipatzen diren termino teknikoen esanahia ezagutzeko jo "Glosategia" izena duen txostenera.

Herri eta eskualdeetako datuak ezagutzeko [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net) datu biltokira jo.

**AURKIBIDEA**

<b>0.</b>	<b>TXOSTENAREN AURKEZPENA .....</b>	<b>3</b>
<b>1.</b>	<b>TESTUINGURUA. OINARRIZKO DATU BATZUK .....</b>	<b>5</b>
<b>2.</b>	<b>EZAUGARRI NAGUSIAK.....</b>	<b>9</b>
2.1.	Ustiategi kopurua .....	9
2.2.	Nekazaritzarako azalera erabilgarria (NAE) .....	11
2.3.	Ustiategi tamaina NAEren arabera .....	14
2.4.	Lurraren edukitze erregimena .....	17
2.5.	Makineria: traktoreak.....	19
<b>3.</b>	<b>NEKAZAL LURREN APROBETXAMENDUA .....</b>	<b>20</b>
3.1.	Landutako lurak .....	20
3.2.	Belar laboreak.....	24
3.3.	Egur laboreak: mahastiak.....	31
3.4.	Larre iraunkorretarako lurak .....	35
<b>4.</b>	<b>AZIENDAK .....</b>	<b>37</b>
4.1.	Behi-aziendak .....	37
4.2.	Ardi-aziendak.....	44
4.3.	Ahutz-aziendak.....	48
4.4.	Txerri-aziendak .....	52
4.5.	Zaldi-aziendak .....	58
4.6.	Hegaztiak .....	62
<b>5.</b>	<b>LAN FAMILIARRA ETA ALOKATUA.....</b>	<b>66</b>
5.1.	Ustiategiko nagusiak adinaren arabera .....	66
5.2.	Urteko lan unitateak: guztira .....	71
5.3.	Urteko lan unitateak: familiarra eta soldatapekoa .....	73
5.4.	Urteko lan unitateak: soldatapeko finkoa.....	76
5.5.	Ustiategi indibidualak .....	77

## 0. TXOSTENAREN AURKEZPENA

Txosten honetan laborantza zentsuen bateratzeak emandako emaitzen aurkezpena egiten dugu. Datu gehienak udalerrri mailaraino lortu baditugu ere, txosten honetan datu orokorren eta zazpi herrialdeetako datuen aurkezpena egiten dugu.

Txostenak bost atal garrantzitsu ditu: lehen atalean, oinarrizko datu batzuk aurkezten ditugu, laborantzari buruzko datu hauek Euskal herriko testuinguruan kokatzeko balioko dutenak. Batez ere, biztanleria datu orokorrak eta zentsuaren arabera lehen sektorean enplegatutako biztanleriaren datuak aurkezten ditugu.

Bigarren atalean, Euskal Herriko laborantzaren egoera orokorraz aritu gara; ustiategi kopuru orokorra, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria, ustiategien tamaina, edukitze erregimena eta makinariari buruzko hainbat datu aurkezten ditugu.

Hirugarren atalean, berriz, nekazal lurren aprobetxamenduari buruzko datuak aurkezten ditugu; zehazki landutako lurren eta larre iraunkorretarako lurren inguruko datu batzuk eskaintzen ditugu.

Laugarren atalean, azientei buruzko datuak aurkezten ditugu: behi-azientak, ardi-azientak, ahuntz-azientak, txerri-azientak, zaldi-azientak eta hegaztiak.

Azkenik, bosgarren atalean, ustiategiko lan egoerari buruzko datu batzuk aurkezten ditugu; ustiategiko nagusien adin banaketa, Urteko Lan Unitateak eta ustiategi indibidualen kopurua.

Laborantza zentsuak batzerako lan honetan bi eragiketa berezietatik hartu dugu informazioa:

- Misistère de l' Agriculture et de la Peche: "Recensement Agricole, 2000".
- INE: Censo Agrario, 1982, 1989 eta 1999.

Informazio iturriak, berriz, hauek izan dira:

- Ministère de l' Agriculture et de la Peche: "Recensement Agricole, 2000". Le Fiche Comparative cd-rom.
- Frantziako Estatuko Ministère de l' Agriculture et de la Peche: Service Central Des Enquêtes et études Statistiques-en egindako eskaera berezia (Agreste - RA2000-RGA88-RGA79)
- Espainiako Estatuko Instituto Nacional de Estadística-ren web gunea: [www.ine.es](http://www.ine.es)
- Eta web gune horretatik jasotako Mikrodatuen fitxategiak (1982, 1989 eta 1999. urteko laborantza zentsuetako emaitzekin)

Bestalde, oinarrizko informazioa aurkezteko datuak [www.datutalaita.net](http://www.datutalaita.net) web gunetik eta "Euskal Herria datuen talaiatik, 2006" liburutik jaso ditugu.

Honaino, laborantza zentsuen lehen emaitzen aurkezpena. Lan honek beste maila betatarako azterketetarako bidea irekitzen digu; lehenik eta behin, emaitza hauen ondorio nagusien eratoritzea egitea ezinbestekoa da, eta ondoren beste maila batetako azterketak eta datuen ustiaketa egiteko aukera ere izango dugu (adibidez, Euskal Herriko laborantza eredu ezberdinetako zonaldeen azterketa berezitua, etab.).

## 1. TESTUINGURUA. OINARRIZKO DATU BATZUK


- Euskal Herrian ia hiru miloi biztanle, 20.950 Km<sup>2</sup>tan eta 685 udalerritan
- Beraz, 139 pertsona Km<sup>2</sup> bakoitzeko
- **Bizkaia** da herrialde populatuena eta biztanle dentsitate handiena duena; 502 biztanle kilometro koadroko. **Zuberoa** da, berriz, biztanle gutxien biltzen dituen herrialdea eta dentsitaterik txikiena duena; 19 biztanle kilometro koadroko.
- Biztanle dentsitateari dagokionez tartean, Euskal Herriko batez bestekotik gora, Bizkaiaz gain, **Gipuzkoa** (340 biztanle km<sup>2</sup>ko) eta **Lapurdi** (256 biztanle km<sup>2</sup>ko) ditugu.
- Batez bestekotik behera, gainontzekoak, **Araba** (89), **Nafarroa Garaia** (21) eta **Zuberoa** (19).
- Ondoren ikusiko dugun bezala, dentsitaterik txikiena duten herrialde horietan du lehen sektoreak edo nekazaritzak indar gehiago.

### 1. Biztanleria, azalera eta dentsitatea, herrialdeka. Euskal Herria, 2005

	Azalera	Biztanleria	Dentsitatea
Araba	3.316,9	287.928	86,8
Bizkaia	2.236,7	1.123.002	502,1
Gipuzkoa	1.980,3	673.563	340,1
Lapurdi	855,7	219.029	256,0
Nafarroa Beherea	1.325,2	28.377	21,4
Nafarroa Garaia	10.421,0	555.829	53,3
Zuberoa	814,5	15.535	19,1
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>20.950,3</b>	<b>2.903.263</b>	<b>138,6</b>

Iturria: Udalbiltza "Euskal Herria datuen talaiatik, 2006"


### 2. Dentsitatea, herrialdeka. Euskal Herria, 2005



Iturria: Udalbiltza "Euskal Herria datuen talaiatik, 2006"

- **Euskal Herrian**, 2001. urteko datuen arabera, 36.326 lagun zeuden laborantzan enplegatuen; biztanleria okupatuaren %3,0 besterik ez.
- Herrialdeetik herrialdera, ordea, aldea nabarmena da. Gainontzeko herrialdeekin alderatuta, lehen sektoreak askoz pisu handiagoa du **Nafarroa Beherean** eta **Zuberoan**; enplegatuen %26,3 eta 21,5, hurrenez hurren.
- Beste aldean, kostaldeko hiru herrialdeetan du pisu gutxien lehen sektoreak enplegatuei dagokienez; **Bizkaian** (enplegatuen %1,7), **Gipuzkoan** (%1,8) eta **Lapurdin** (%2,4), alegia.
- Azkenik, tartean, **Arabak** eta **Nafarroa Garaiak** hiru horiek baino portzentaje handiagoak dauzkate, baina Zuberoa eta Nafarroa Behereko maila iritsi gabe. Horrela, Arabako biztanleria enplegatuen %3,1 ari da lanean lehen sektorean eta Nafarroa Garaiko biztanleriaren %5,4.


### 3. Nekazaritzako sektorean enplegatutakoak okupatu guztiekiko, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net) (2006/06/20)

- Aurreko datu horiek lehen sektoreak herrialde bakoitzaren barruan duen pisua adierazten digute, baina garrantzitsua da ere datuen beste aldea begiratzea.
- Euskal Herrian lehen sektorean enplegatua dagoen biztanleria erreparatzen badugu, eta enplegatu hauek herrialde bakoitzean nola banatzen diren aztertzen badugu, nekazaritzan enplegatutako biztanle gehienak Nafarroa Garaian bizi direla ikusten dugu; Euskal Herrian lehen sektorean ari direnen %36,2 herrialde horretakoak dira.
- Atzetik datoz gainontzekoak, hurrenkera honetan: Bizkaia (%20,6), Gipuzkoa (%14,8), Araba (%10,9), Nafarroa Beherea (%8,4), Lapurdi (%5,5) eta Zuberoa (%3,6).


#### 4. Nekazaritzako sektorean enplegatutakoen banaketa, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net) (2006/06/20)

- Azken urteetako joera erreparatuta, ikusten dugu lehen sektoreak gero eta pisu erlatibo apalagoa duela okupatuen artean.
- 1975. urtean Euskal Herriko biztanle okupatuen %8,3 zegoen lehen sektorean enplegatua. Esan dugun bezala, 2001. urtean portzentaje hori %3,0ra jaitsi da.
- Jaitsiera hori herrialde guztietan eman da gainera

##### 5. Nekazaritzako sektorean enplegatutako biztanleria, herrialdeka. Euskal Herria, 1975-2001 (%)



Iturria: [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net) (2006/06/20)

## 2. EZAUGARRI NAGUSIAK

### 2.1. Ustiategi kopurua

- o 1999. urtean **71.699 nekazal ustiategi** genituen Euskal Herrian.
- o Horietatik, gehienak **Nafarroa Garaian** (25.406), ustiategi guztien %35,4, eta **Bizkaian** (20.376), ustiategi guztien %28,4.
- o Ustiategi gutxien, berriz, **Zuberoan** (1.070), ustiategi guztien %1,5, **Lapurdin** (2.404), guztien %3,4, eta **Nafarroa Beherean** (2.514), ustiategien %3,5, ditugu.
- o Azkenik, tartean daude, **Gipuzkoa** (12.405), ustiategien %17,3arekin, eta **Araba** (7.521), ustiategien %10,5arekin.

#### METODOLOGIA OHARRA:

**Ustiategiak** aztertzeko garaian, bai atal honetan eta baita gainontzekoetan ere, kontuan izan behar dugu ustiategien definizioa ez dela guztiz baliokidea Frantziako Estatuko eta Espainiako Estatuko zentsuetan, hona bata eta bestea:

INSEE: "Elle se définit comme une unité économique répondant simultanément aux trois conditions suivantes : 1. elle produit des produits agricoles; 2. elle atteint ou dépasse une certaine dimension (1 hectare de SAU, sinon, 20 ares de cultures spécialisées, sinon, présence d'une activité suffisante de production agricole estimée en effectifs d'animaux, en surface de production ou en volume de production); 3. elle est soumise à une gestion courante indépendante"

INE: "Es la unidad técnico-económica de la que se obtienen productos agrarios bajo la responsabilidad de un titular. Dicha unidad técnico-económica se caracteriza por la utilización de los mismos medios de producción: mano de obra, maquinaria, etc."


Beraz, Ipar Euskal Herrian dimentsio jakin bat izan behar dute eta Hego Euskal Herrian berriz ez.

### 6. Ustiategi kopurua, herrialdeka. Euskal Herria, 1999

Herrialdea	kop.	%
Araba	7.521	10,5
Bizkaia	20.379	28,4
Gipuzkoa	12.405	17,3
Lapurdi	2.404	3,4
Nafarroa Beherea	2.514	3,5
Nafarroa Garaia	25.406	35,4
Zuberoa	1.070	1,5
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>71.699</b>	<b>100,0</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 2000. urtekoak dira.

### 7. Ustiategien banaketa, herrialdeka. Euskal Herria, 1999 (%)




- **Euskal Herrian**, ustiategi kopuruak %22,6 egin du behera 1982. urtetik 1999. urtera; 92.638 izatetik, 71.699 izatera, alegia.
- Herrialde guztietan gertatu da ustiategien desagertze hau, **Gipuzkoan salbu**, non ustiategi kopuruak %5,3 egin du gora; 11.776 izatetik 12.405 izatera, hain zuzen.
- Gainontzeko herrialdeetatik, **Nafarroa Garaiko** ustiategi kopuruak izan du beheraka handiena; 17 urte horietan 17.000 ustiategi baina gehiago desagertu dira herrialde honetan.
- **Zuberoan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean** ere, ustiategi kopuruek beherakada nabarmena izan dute. Zuberoan ustiategien %33,5 desagertu da, Lapurdin %31,5 eta Nafarroa Beherean %26,7.
- Azkenik, **Araban eta Bizkaian** ere ustiategi kopuruak behera egin du, baina neurri askoz apalagoan. Araban ustiategien %9,1 desagertu da (757 ustiategi) eta Bizkaian %5,1 (1.093 ustiategi).

### 8. Ustiategi kopurua, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999

Herrialdea	1982	1989	1999	1982-1999 (%)
Araba	8.278	8.516	7.521	-9,1
Bizkaia	21.472	22.925	20.379	-5,1
Gipuzkoa	11.776	12.318	12.405	5,3
Lapurdi	3.509	2.706	2.404	-31,5
Nafarroa Beherea	3.432	3.030	2.514	-26,7
Nafarroa Garaia	42.563	40.047	25.406	-40,3
Zuberoa	1.608	1.375	1.070	-33,5
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>92.638</b>	<b>90.917</b>	<b>71.699</b>	<b>-22,6</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1979, 1988 eta 2000. urtekoak dira.

### 9. Ustiategiak, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (Kopuruak)



## 2.2. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria (NAE)


- **Euskal Herrian 1.010.876 ha.** ditugu Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria direnak.
- Horietatik gehienak, berriz ere, **Nafarroa Garaian** ditugu; azalera erabilgarriaren %59,5 herrialde honetan biltzen da.
- Ondoren, **Araba nabarmentzen** da, azalera askoz txikiagoarekin bada ere. Herrialde honetan, 142.785 ha. ditugu NAE direnak; Euskal Herriko azaleraren %14,1.
- Nekazaritzarako Azalera Erabilgarri txikiena, berriz, **Zuberoan eta Lapurdin** dugu; Euskal Herriko azaleraren %3,3 eta %3,4, hurrenez hurren.
- Tartean ditugu beste herrialdeak: **Nafarroa Beherea** (Euskal Herriko NAEaren %7,0), **Bizkaia** (%6,7) eta **Gipuzkoa** (5,9).

### 10. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria, herrialdeka. Euskal Herria, 1999

Herrialdea	Hektarea	%
Araba	142.785	14,1
Bizkaia	68.160	6,7
Gipuzkoa	59.799	5,9
Lapurdi	33.997	3,4
Nafarroa Beherea	71.255	7,0
Nafarroa Garaia	601.449	59,5
Zuberoa	33.431	3,3
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>1.010.876</b>	<b>100,0</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 2000. urtekoak dira.

### 11. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren banaketa, herrialdeka. Euskal Herria, 1999 (%)




- Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren herrialdekako banaketa honek, ordea, badu ere beste irakurketa bat. Azken batean, herrialde bakoitzaren azalera ez da berdina, eta beraz, tamaina batek eta besteak ez dute garrantzia bera. Ikus dezagun.
- Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak azalera guztiarekiko duen pisua aztertu dugu. **Euskal Herriko** udalerrien azalera guztia kontuan hartzen badugu, udalerrietako azalera guztiaren erdia baino apur bat gehiago Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria da (%53,7).
- Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak pisu handiena, berriz ere, **Nafarroa Garaian** du. Herrialde honetan, udalerrietako azalera guztiaren %63,1 NAE da. Ondoren, Euskal Herriko batez bestekotik apur bat gora, **Nafarroa Beherean** du NAEak pisu gehien, azalera guztiaren %53,8 da NAE.
- Ondoren, **Araba nabarmentzen** da; herrialde honetan udalerrietako azalera guztiaren %48,3 da NAE.
- Portzentajerik txikiena, berriz, **Gipuzkoak** du. Herrialde honetan, azalera guztiaren %36,9a besterik ez da NAE. Eta **Bizkaian eta Lapurdin** ere portzentajeak antzekoak dira; %39,3 eta %39,7, hurrenez hurren. Azkenik, **Zuberoako** azaleraren %41,0 da NAE.

## 12. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak duen pisua azalera guztiarekiko<sup>1</sup>, herrialdeka. Euskal Herria, 1999

Kodea	Azalera guztira ha.	NAE ha.	NAE %
Araba	295.892	142.785	48,3
Bizkaia	173.656	68.160	39,3
Gipuzkoa	162.072	59.799	36,9
Lapurdi	85.568	33.997	39,7
Nafarroa Beherea	132.520	71.255	53,8
Nafarroa Garaia	952.506	601.449	63,1
Zuberoa	81.453	33.431	41,0
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>1.883.667</b>	<b>1.010.876</b>	<b>53,7</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 2000. urtekoak dira.

## 13. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak azalera guztiarekiko duen pisua, herrialdeka. Euskal Herria, 1999 (%)



<sup>1</sup> Herrialdeetako azalera guztia udalerrietako hektareen batuketarekin kalkulatu dugu. Partzuergoak etab. kanpo geratzen dira, beraz. Ondorioz, kopuru honek ez du bat egiten lehen atalean aurkeztu dugunarekin.


- **Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriak** %19,2 egin du gora aztertutako 17 urteetan; 1982. urtean 847.733 hektareakoa zen eta 1999. urtean 1.010.876 hektareakoa.
- NAEaren handitze hori gainera herrialde guztietan eman da. Azalera hori gehien handitu duen herrialdea **Gipuzkoa** izan da (%35,1 handitu da); baina, **Bizkaia** (%33,6) eta **Arabak** (%27,9) era dezente handitu dute bere NAEa.
- NAEa gutxien handitu duen herrialdea, berriz, **Lapurdi** izan da (%2,5 besterik ez).
- Tartean, gainontzeko hiru herrialdeak: **Zuberoa** (%18,7 handitu da NAEa bertan), **Nafarroa Garaia** (%16,3) eta **Nafarroa Beherea** (%14,1).
- Azkenik, aipagarria da, hiru herrialdek, Lapurdik, Zuberoak eta Nafarroa Behereak 1979tik 1988ra NAEa galdu egin zutela eta urte horretatik 2000ra handitu egin dutela; gora behera txiki bat eman delarik. Beste salbuespen bat; Nafarroa Garaiak 1982tik 1989ra NAEa handitu bazuen ere, urte horretatik 1999ra NAEa galdu egin du (%3,0, hain zuzen).<sup>2</sup>

#### 14. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (hektareak)

Herrialdea	1982	1989	1999	1982-1989 (%)
Araba	111.679	119.569	142.785	27,9
Bizkaia	51.012	60.611	68.160	33,6
Gipuzkoa	44.275	57.544	59.799	35,1
Lapurdi	33.183	31.704	33.997	2,5
Nafarroa Beherea	62.468	61.517	71.255	14,1
Nafarroa Garaia	516.954	620.150	601.449	16,3
Zuberoa	28.162	26.133	33.431	18,7
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>847.733</b>	<b>977.228</b>	<b>1.010.876</b>	<b>19,2</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1979, 1988 eta 2000. urtekoak dira.

#### 15. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (hektareak)



<sup>2</sup> Komenigarria litzateke *Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria (NAE)* kontzeptuaren bilakaera aztertzea. Adituek adierazi zigutenez nekazaritzako lurrak galdu egin omen dira eta datu hauek ez dute horrelakorik islatzen; ziurrenik, NAE kontzeptuaren eduki aldaketei zor zaio hori. Ikus glosategiko txostena ([www.gaindegia.org/eu/glosategia](http://www.gaindegia.org/eu/glosategia))

### 2.3. Ustiategi tamaina NAEren arabera

- **Euskal Herriko** ustiategi batez besteko tamaina 14,1 hektareakoa da (Nekazaritzarako Erabilgarria den Azalera kontuan hartuta).
- Herrialdeka, ustiategi handienak Zuberoan (batez beste 31,0 ha.), **Nafarroa Beherean** (28,0 ha.) eta **Nafarroa Garaian** (23,7 ha.) ditugu.
- Txikiak, berriz, **Bizkaian** (batez beste 3,3 ha.) eta **Gipuzkoan** (4,8 ha.).
- Tartean ditugu, **Araba** (batez beste 19,0 ha.) eta **Lapurdi** (14,0 ha.)
- Ustiategi tamainen azterketan sakontzeko, 30ha. edo gehiago dituzten ustiategiak zenbatu ditugu. **Euskal Herrian**, tamaina horretako 7.700 ustiategi daude (ustiategi guztien %10,7).
- Proportzioan **Zuberoa eta Nafarroa Beherea** dira 30 ha. edo gehiagoko ustiategi gehien dituzten herrialdeak. Bi herrialde hauetan ustiategi ia erdiak tamaina honetakoak dira (%47,2 eta %40,8 hurrenez hurren).
- Tamaina honetako ustiategi gutxien proportzioan **Bizkaia eta Gipuzkoak** dituzte, herrialde hauetan ustiategi %1,1 eta %1,5 hurrenez hurren dira tamaina horretakoak.
- Azkenik, tartean, **Araba, Nafarroa Garaia eta Lapurdi**; herrialde hauetan ustiategi %15 eta %18ren bueltan dituzte 30 ha. edo gehiago.


#### 16. Ustiategiak tamainaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 1999

Herrialdea	Ustiategiak	Ustiategietan batez besteko NAE	30 ha edo gehiagoko ustiategiak	
			Kopurua	Ustiategiaren %
Araba	7.521	19,0	1.378	18,3
Bizkaia	20.379	3,3	219	1,1
Gipuzkoa	12.405	4,8	181	1,5
Lapurdi	2.404	14,0	368	15,3
Nafarroa Beherea	2.514	28,0	1.026	40,8
Nafarroa Garaia	25.406	23,7	4.023	15,8
Zuberoa	1.070	31,0	505	47,2
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>71.699</b>	<b>14,1</b>	<b>7.700</b>	<b>10,7</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole

Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 2000. urtekoak dira.

#### 17. Ustiategietan batez besteko NAE, herrialdeka. Euskal Herria, 1999



- **Ustiategi bakoitzeko batez besteko NAEa** handitu egin da Euskal Herrian 1982tik 1999ra, asko handitu ere. 1982an 9,2 hektareakoa zen eta 1999. urtean 14,1 hektareakoa. Hots, %54,1 handitu da ustiategi bakoitzeko batez besteko azalera.
- Herrialde guztietan gertatu da hazkunde hori. Batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago bada ere. Horrela, alde nabarmenarekin, ustiategiak, batez ere, Nafarroa Garaian handitu dira; 1982ko 18 ha.tatik, 1999ko 31 ha.tara, %94,9ko hazkundera. **Zuberoan** ere asko handitu dira ustiategiak, 18,0 hektareatik 31,0 hektareara, %72,2ko hazkundera.
- Gutxien, berriz, **Gipuzkoan** handitu dira ustiategiak; 1982an batez besteko 3,8 hektareatako azaleratik, 1999an 4,8 hektareatako azalera, %28,2ko hazkundera.
- Gainontzekoetan hazkundera nabarmena izan da ere, ez aurreko bien mailakoa, baina Gipuzkoakoa baina dezente handiagoa: **Nafarroa Beherean** eta **Lapurdin** %55,6ko hazkundera, eta **Araban** eta **Bizkaian** ia %41eko hazkundera.


### 18. Ustiategietan batez besteko NAE, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999

Herrialdea	1982	1989	1999	1982-1999 (%)
Araba	13,5	14,0	19,0	40,7
Bizkaia	2,4	2,6	3,3	40,8
Gipuzkoa	3,8	4,7	4,8	28,2
Lapurdi	9,0	12,0	14,0	55,6
Nafarroa Beherea	18,0	20,0	28,0	55,6
Nafarroa Garaia	12,1	15,5	23,7	94,9
Zuberoa	18,0	19,0	31,0	72,2
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>9,2</b>	<b>10,8</b>	<b>14,1</b>	<b>54,1</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole

Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1979, 1988 eta 2000. urtekoak dira.

### 19. Ustiategietan batez besteko NAE, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999



- Ustiategien tamainaren handitzearen beste adierazle bat, **30 hektarea edo gehiago dituzten ustiategien** bilakaeraren azterketa da. Euskal Herrian, 1982. urtetik 1999. urtera %36,6 handitu dira ustiategi hauek; 5.637 izatetik 7.700 izatera pasatuaz.
- Datu hau are esanguratsuagoa da, esan dugun bezala ustiategien kopuru orokorra jaitsi egin delako; gogoratu, %22,6ko beherakada izan du ustiategi kopuru orokorrak.
- 30 hektarea baino gehiagoko ustiategien kopuruaren hazkundea gainera, herrialde guztietan eman da, modu nabarmenean gainera. Tamaina honetako ustiategiak hirukoiztu egin dira **Bizkaian eta Gipuzkoan**, eta ia hirukoiztu egin dira **Zuberoan**.
- **Lapurdin**, berriz, bikoiztu egin dira 30 hektarea edo gehiagoko ustiategiak, eta ia bikoiztu **Nafarroa Beherean**.
- Azkenik, tamaina honetako ustiategiak gutxien **Nafarroa Garaian eta Araban** handitu dira; Nafarroa Garaian 30 hektarea edo gehiagoko ustiategiak %13,6 gehiago dira, eta Araban %26,8 gehiago.


## 20. 30 ha edo gehiagoko ustiategiak, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999

Herrialdea	1982	1989	1999	1982-1999 (%)
Araba	1.087	1.239	1.378	26,8
Bizkaia	73	120	219	200,0
Gipuzkoa	57	98	181	217,5
Lapurdi	167	221	368	120,4
Nafarroa Beherea	525	595	1.026	95,4
Nafarroa Garaia	3.541	3.736	4.023	13,6
Zuberoa	187	217	505	170,1
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>5.637</b>	<b>6.226</b>	<b>7.700</b>	<b>36,6</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole

Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1979, 1988 eta 2000. urtekoak dira.

## 21. 30 ha edo gehiagoko ustiategiak, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (Kopuruak)



## 2.4. Lurraren edukitze erregimena


- **Euskal Herrian** Nekazaritzarako Erabilgarria den azaleraren %27,3 errentan dago; hots, 276.252 hektarea.
- Proportzioan errentan azalera gehien duen herrialdea **Araba** da; herrialde horretan azaleraren %40,7 errentan dago.
- Beste aldea **Gipuzkoa** dugu. Herrialde honetan dago proportzioan azalera gutxien errentan; herrialde honetako NAEaren %13,8 besterik ez.
- Tartean, Euskal Herriko batez bestekotik gora, antzeko portzentajeekin **Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Lapurdi** (%30aren bueltan); eta, batez bestekotik behera, **Nafarroa Garaia** (NAEaren %25,7 errentan) eta **Bizkaia** (%20,3).

### 22. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria errentan, herrialdeka. Euskal Herria, 1999 (hektareatan)

Herrialdea	NAE	Azalera errentan	% errentan
Araba	142.785	58.148	40,7
Bizkaia	68.160	13.835	20,3
Gipuzkoa	59.799	8.231	13,8
Lapurdi	33.997	9.904	29,1
Nafarroa Beherea	71.255	21.442	30,1
Nafarroa Garaia	601.449	154.728	25,7
Zuberoa	33.431	9.964	29,8
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>1.010.876</b>	<b>276.252</b>	<b>27,3</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 2000. urtekoak dira.

### 23. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria errentan, herrialdeka. Euskal Herria, 1999 (%)



- o **Euskal Herrian** errentan dagoen Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren protzentajeak gora egin du 1982-1999 urte bitartean; %20,1etik %27,3ra pasada, %35,6ko hazkundera beraz.
- o Dena den, bilakaera hau ez da berdina izan herrialde guztietan. **Nafarroa Garaian**, errentan dagoen NAE proportzioa %83,9 handitu den bitartean, **Bizkaian**, **Gipuzkoan** eta **Arabian** gutxitu egin da; %31,3, %25,9 eta %6,5, hurrenez hurren.
- o **Zuberoan** (%53,4) eta **Nafarroa Beherean** (%32,5) ere errentan dagoen azalera proportzioa dezente handitu da, eta **Lapurdin** (%3,2), berriz, apur bat besterik ez.


#### 24. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria errentan, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (%)

Herrialdea	1982	1989	1999	1982-1999 %
Araba	43,6	36,9	40,7	-6,5
Bizkaia	29,6	27,6	20,3	-31,3
Gipuzkoa	18,6	13,9	13,8	-25,9
Lapurdi	28,2	27,9	29,1	3,2
Nafarroa Beherea	22,7	16,9	30,1	32,5
Nafarroa Garaia	14,0	10,6	25,7	83,9
Zuberoa	19,4	16,7	29,8	53,4
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>20,1</b>	<b>16,0</b>	<b>27,3</b>	<b>35,6</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole

Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1979, 1988 eta 2000. urtekoak dira. Datuek ez dute biltzen Trebiñuko konderriko eta Villaverde Turtziozko informazioak 1982ko eta 1989ko datuetan,

#### 25. Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria errentan, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (%)



## 2.5. Makineria: traktoreak


- **Euskal Herriko** ustiatzietan, 1999. urtean, 41.375 traktore zenbatu ditugu, jabetzan edo jabekidetasunean.
- Aztertutako epealdian gora egin du erabilitako makina kopuruak, 1982. urteko 34.802 traktoretatik, 1999. urteko 41.795 traktoretara, %20,1eko igoera beraz.
- **Herrialde guztietan** egin du gora gainera. Gutxiago **Nafarroa Garaian** (%1,5eko igoera) eta gehiago **Gipuzkoan** (%83,6ko igoera)

### 26. Ustiatzietan dagoen traktore kopurua, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (jabetzan eta jabekidetasunean)

Herrialdea	1982	1989	1999	1982-1999 (%)
Araba	5.138	5.775	6.272	22,1
Bizkaia	4.809	5.319	6.206	29,0
Gipuzkoa	3.551	5.011	6.520	83,6
Lapurdi	2.036	2.205	2.304	13,2
Nafarroa Beherea	2.974	3.482	3.638	22,3
Nafarroa Garaia	14.670	15.691	14.894	1,5
Zuberoa	1.624	1.917	1.961	20,8
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>34.802</b>	<b>39.400</b>	<b>41.795</b>	<b>20,1</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
 Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1979, 1988 eta 2000. urtekoak dira. Datuek ez dute biltzen Trebiñuko konderriko eta Villaverde Turtziozko informaziorik 1982ko eta 1989ko datuetan

### 27. Ustiatzietan dagoen traktore kopurua, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (Kopuruak jabetzan eta jabekidetasunean)



### 3. NEKAZAL LURREN APROBETXAMENDUA

#### 3.1. Landutako lurrak


- **Euskal Herrian** landutako lurrak 473.211 hektarea biltzen dituzte, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren ia erdia (%46,8).
- Landutako lurren azalera handiena **Nafarroa Garaiak** biltzen du, 329.502 hektarea. Ondoren, **Araba** da landutako lurren azalera handiena duena, 87.267 hektarea.
- Landutako lurrek azalera gutxien **Gipuzkoan** eta **Bizkaian** dute, 4.961 hektarea eta 3.264 hektarea, hurrenez hurren.
- Tartean, gainontzeko hirurak: **Nafarroa Beherea** (25.773 hektarea), **Zuberoa** (11.295) eta **Lapurdi** (11.149).
- Hurrenkera hau aldatu egiten da, landutako lurrak Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren baitan hartzen duten azalera portzentajearen arabera neurtzen baditugu. **Arabak** du portzentajerik altuena; herrialde honetan, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %61,1 landutako lurrak dira. Ondoren, **Nafarroa Garaian** NAEren %54,8 landutako lurrak dira.
- Berriz ere, portzentaje baxuena **Bizkaiak** eta **Gipuzkoak** dute. Herrialde hauetan, NAEren %4,8 eta %8,3 dira landutako lurrak, gainontzekoa landugabeko lurrak dira beraz.
- Tartean, antzeko portzentajeekin, **Nafarroa Beherea** (NAEaren %36,2 dira landutako lurrak), **Zuberoa** (%33,8) eta **Lapurdi** (%32,8).

#### 28. NAE eta landutako lurrak, herrialdeka. Euskal Herria, 1999

Herrialdea	NAE ha.	Lur landuak ha.	Landutako lurren %
Araba	142.785	87.267	61,1
Bizkaia	68.160	3.264	4,8
Gipuzkoa	59.799	4.961	8,3
Lapurdi	33.997	11.149	32,8
Nafarroa Beherea	71.255	25.773	36,2
Nafarroa Garaia	601.449	329.502	54,8
Zuberoa	33.431	11.295	33,8
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>1.010.876</b>	<b>473.211</b>	<b>46,8</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 2000. urtekoak dira.

#### 29. NAEan landutako lurrek duten pisua, herrialdeka. Euskal Herria, 1999 (%)



- Aipatutako landutako 462.884 hektarea hauek, 54.277 ustiategietan banatzen dira. Batez beste, beraz, 8,5 landutako hektarea ustiategi bakoitzeko.
- Landutako lurak dituzten ustiategi gehienak Nafarroa Garaian aurkitzen ditugu, 21.266 ustiategi landutako lurrekin. Ondoren, landutako lurak dituzten ustiategi kopuruen hurrenkeran, **Bizkaia**, 14.784 ustiategirekin, eta **Gipuzkoa**, 9.107 ustiategirekin, ditugu.
- Ustiategi gutxien, berriz, **Zuberoan** (810), **Lapurdi** (1.122) eta **Nafarroa Beherean** (1.657) aurkitu ditugu.
- Tartean, **Araba** dugu, landutako lurak dituzten 5.531 ustiategirekin.
- Gogoratu dezagun ordea, landutako lurren hektarea kopurua ez dela hurrenkera horretan banatzen herrialdeen arabera. Ondorioz, alde handiak topatzen ditugu ustiategi bakoitzean landutako lurren batez besteko hektareatan. Horrela, landutako lurak dituzten ustiategien artean, antzeko batez besteko tamaina dute **Nafarroa Beherean** (15,6 ha.), **Nafarroa Garaian** (15,5 ha.), **Zuberoan** (13,9 ha.) eta **Arabian** (13,9 ha.).
- Aldiz, dezente txikiagoak dira **Bizkaiko** (0,2 landutako ha. ustiategi bakoitzeko) eta **Gipuzkoako** (0,5 ha.) ustiategiak.
- Tartean, baina aurrekoetatik gertuago, **Lapurdi** dugu (9,9 landutako ha. ustiategiko).


### 30. Lur landuak dituzten ustiategiak eta lur landuen batez besteko hektarea kopurua, herrialdeka. Euskal Herria, 1999

Herrialdea	Lur landuak (Ustiategiak)	Lur landuak (hektareak)	Batez beste lur landuak ustiategiko (ha)
Araba	5.531	77.000	13,9
Bizkaia	14.784	3.204	0,2
Gipuzkoa	9.107	4.961	0,5
Lapurdi	1.122	11.149	9,9
Nafarroa Beherea	1.657	25.773	15,6
Nafarroa Garaia	21.266	329.502	15,5
Zuberoa	810	11.295	13,9
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>54.277</b>	<b>462.884</b>	<b>8,5</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole

Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 2000. urtekoak dira. Datuek ez dute biltzen Trebiñuko konderriko eta Villaverde Turtziozko informaziorik

### 31. Lur landuen batez besteko hektareak, herrialdeka. Euskal Herria, 1999




- Aztertutako epealdian, handitu egin da **Euskal Herrian** landutako lurrek betetzen duten azalera; %3,4 handitu da, 1982an 457.540 hektarea izatetik, 1999. urtean 473.211 hektarea izatera.
- Bilakaera hau, ordea, ez da berdina izan herrialde guztietan. Badira landutako lurren azalera txikiagotu duten herrialdeak, eta, noski, badira handitu dutenak era.
- Azalera txikiagotu dutenen artean, **Bizkaia** nabarmentzen da. Herrialde honek, landutako lurren azaleraren %54,6 galdu du. Era berean, **Gipuzkoak** ere, landutako lurrak galdu ditu, landutako lurren azaleraren %10,6, hain zuzen. Neurri apalagoan, **Nafarroa Garaiak** 17 urte hauetan landutako lurren azaleraren %2,5a galdu du.
- Landutako lurren hektarea kopurua handitu dituztenen artean, berriz, **Zuberoa** eta **Nafarroa Beherea** nabarmentzen dira. Lehen herrialde honetan, %74,5 hazi da landutako lurren hektarea kopurua. Nafarroa Behereko hektarea kopurua, berriz, %71,4ean hazi da.
- Neurri apalagoan, baina nabarmen ere, hazi da **Lapurdikoa** landutako lurren hektarea kopurua, %33,8ko hazkundera izan dute. Azkenik, **Arabako** landutako lurren azalera %13,6ean hazi da.

### 32. Landutako lurrak bilakaera, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999

Herrialdea	1982 ha	1989 ha	1999 ha	1982-1999 %
Araba	76.848	76.087	87.267	13,6
Bizkaia	7.188	5.250	3.264	-54,6
Gipuzkoa	5.549	3.965	4.961	-10,6
Lapurdi	8.330	8.915	11.149	33,8
Nafarroa Beherea	15.037	16.795	25.773	71,4
Nafarroa Garaia	338.115	328.550	329.502	-2,5
Zuberoa	6.473	7.091	11.295	74,5
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>457.540</b>	<b>446.653</b>	<b>473.211</b>	<b>3,4</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole  
Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1979, 1988 eta 2000. urtekoak dira. Datuek ez dute biltzen Trebiñuko konderriko eta Villaverde Turtziozko informaziorik 1982ko eta 1989ko datuetan

### 33. Landutako lurrak bilakaera, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (hektareak)



- Aztertutako epealdian landutako lurren azalera handitu egin bada ere, Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria neurri handiagoan hazi da. Beraz, landutako lurren NAEarekiko portzentajea txikitu egin da.
- Horrela, 1982an landutako lurrek Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %54,7 suposatzen bazuten, 1999. urtean portzentaje hori %46,8ra jaitsi da.
- Portzentaje hori **Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian txikitu** egin da. **Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan**, berriz, handitu egin da.
- Bereziki nabarmena da, **Bizkaia eta Gipuzkoako** jaitsiera. Bizkaian, 1982an landutako lurrak Nekazaritzarako Azalera Erabilgarriaren %14,2 suposatzen zuten (jadanik nahikoa portzentaje txikia); 1999. urtean berriz, landutako lurrek suposatzen duten portzentaje hori %4,8ra jaitsi da. Era berean, Gipuzkoan, 1982an landutako lurrek NAEaren %12,5 suposatzen bazuten, 1999. urtean %8,3a suposatzen dute.


#### 34. Landutako lurren NAEarekiko portzentajea, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999

Herrialdea	1982		1989		1999	
	ha	NAEarekiko %	ha	NAEarekiko %	ha	NAEarekiko %
Araba	76.848	75,9	76.087	69,2	87.267	61,1
Bizkaia	7.188	14,2	5.250	8,8	3.264	4,8
Gipuzkoa	5.549	12,5	3.965	6,9	4.961	8,3
Lapurdi	8.330	25,1	8.915	28,1	11.149	32,8
Nafarroa Beherea	15.037	24,1	16.795	27,3	25.773	36,2
Nafarroa Garaia	338.115	65,4	328.550	53,0	329.502	54,8
Zuberoa	6.473	23,0	7.091	27,1	11.295	33,8
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>457.540</b>	<b>54,7</b>	<b>446.653</b>	<b>46,2</b>	<b>473.211</b>	<b>46,8</b>

Iturria: INE: Censo Agrario eta Agreste: la statistique agricole

Oharra: Lapurdi, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1979, 1988 eta 2000. urtekoak dira. Datuek ez dute biltzen Trebiñuko konderriko eta Villaverde Turtziozko informazioak 1982ko eta 1989ko datuetan

#### 35. Lur landuak NAEarekiko portzentajea, herrialdeka. Euskal Herria, 1982-1989-1999 (%)



### 3.2. Belar laboreak

- Ez ditugu belar labore guztien datuak esku artean, baina ditugun artean ematen den banaketa aztertuko dugu atal honetan.
- Landutako lurrek betetzen duten 473.211 hektarea horietatik, 272.310 zerealek betetzen dituzte (landutako lurren %57,5). Zerealek azalera gehien **Nafarroa Garaian** eta **Araban** betetzen dituzte. Herrialde hauetan landutako lurren %60 baino gehiago zerealak betetakoak dira.
- Zerealek presentzia gutxien **Gipuzkoan** eta **Bizkaian** dute; bertan landutako lurren %5,3 baino ez dituzte betetzen.
- Tartean, **Lapurdin, Nafarroa Beherean** eta **Zuberoan** zerealek landutako lurren %26-29 betetzen dituzte.
- Artoak eta bazka-artoak, Euskal Herriko landutako lurren %7,9 osatzen dute, eta garrantzia berezia dute **Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan**. Landutako lurren erdia baino gehiago suposatzen dute Lapurdi, %41 Nafarroa Beherean eta %35 Zuberoan. Gainontzeko herrialdeetan, garrantzia askoz txikiagoa dute belar labore hauek.
- Azkenik, azpimarratu behar dugu, **Bizkaian**, batez ere, baina **Gipuzkoan** ere, barazkiak eta patatak betetzen duten azalera duen pisua landutako lurren artean; %17,6 eta 9,3 hurrenez hurren.

#### 36. Belar labore esanguratsuak, herrialdeka. Euskal Herria, 1999


Herrialdea	Lur landuak ha.	Zerealak ha.	Artoa ha.	Bazka-artoak ha.	Barazki eta patatak ha.	Lugorriak ha.	Beste laboreak <sup>3</sup> ha
Araba	87.267	56.092	101	363	4.437	6.574	19.700
Bizkaia	3.264	173	159	299	575	12	2.047
Gipuzkoa	4.961	263	218	102	462	60	3.856
Lapurdi	11.149	3.222	3.069	3.108	78	371	1.301
Nafarroa Beherea	25.773	6.707	6.162	4.297		770	
Nafarroa Garaia	329.502	202.872	14.799	695	13.555	50.688	46.892
Zuberoa	11.295	2.981	2.710	1.275		211	
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>473.211</b>	<b>272.310</b>	<b>27.218</b>	<b>10.138</b>	<b>19.233</b>	<b>58.686</b>	<b>85.625</b>
	%	%	%	%	%	%	%
Araba	100,0	64,3	0,1	0,4	5,1	7,5	22,6
Bizkaia	100,0	5,3	4,9	9,1	17,6	0,4	62,7
Gipuzkoa	100,0	5,3	4,4	2,1	9,3	1,2	77,7
Lapurdi	100,0	28,9	27,5	27,9	0,7	3,3	11,7
Nafarroa Beherea	100,0	26,0	23,9	16,7		3,0	
Nafarroa Garaia	100,0	61,6	4,5	0,2	4,1	15,4	14,2
Zuberoa	100,0	26,4	24,0	11,3		1,9	
